



Akelarre. Nestor Barrenetxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Satur Abon:


«Nire helburua betidanik, emakumea marginaziotik ateratzen laguntzea izan da»



Bat eta bat,
Mahatserrian
hamaika
KORRIKA

1999ko apirila. 12. zenbakia

Txirula Mirula ↔ C.D. Zuharrak ↔ Martin Mentxakatorre



Boluetako Santa Ana

Bizkaiko eta Euskal Herriko historiako giltzarrietako bat dugu Mahatserrian, Boluetako Santa Ana burdindegia. Liburuetan haren aipua aurkitzen ez da zaila. Askok Euskal Herriko eta Estatu espainiarreko lehenengo Labe Garai modernoa dela esango digute, Bizkaiko burdingintzaren urrezko aroaren abiapuntua. Eta bertan dugu, Begoña eta Basauriko mugan, Ibaizabal bazterrean.

XV. mendean Otxaibaia izeneko burdinola zaharra zegoen lekuan 1841ean hasi ziren lantegi berria egiten. Urte hartan Bolueta Begoñako auzoa zen, 1.800 biztanle zeuzkan Begoñak orduan, lehenengo karlistada urte bi lehenago amaitua zen, eta urte hartan bertan eroan ziren aduanak barrualdetik kostara. Horrez gain, XVIII. mendean Zubi Barria eraiki zen bertan, gaurko *Boketea*, handik Pancorboko Erret-bidea (Camino Real) Bidebietarantz joateko.

Leku aproposa zen Bolueta horrelako lantegia egiteko beraz. Bidea, erreka, Ollargan eta Morroko meategiak zeuden bertatik bertara. Honela bada, 1841eko maiatzaren 8an, *Sociedad Anonima Santa Ana de Bolueta* eratu zen, Joaquin de Maza eta Romualdo de Arellano negozio-gizon bilbotarren ekimenez. Ekoizpena urte bi geroago hasi zen, 1843an.

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa: 94 473 54 48
e-posta:
berton@mail.com

ZUZENDARIA:
Aitziber Laskibar

ERREDAKZIOA:
Unai Cuevas,
Arrate Diez, Urtzi
Urrutikoetxea,
Zuriñe Uriarte.
ARGAZKIAK:
Jaione Letamendia-
Iñigo Azkona

**DISEINUA ETA MAKE-
TAZIOA:**
Iñaki Berastegi,
Joseba Barrenetxea,
Benito Fiz

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia,
Itxaso Perez, Alber-
to Ugarte, Iñaki
Gaminde, Edurne
Basozabal, Idoja
Irastorza, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertsu Eskola, Igor
Zorrozueta, Iñaki
Aurrekoetxea, Jose-
ba Zelaia.

Mikel Arrese,
Xabier Herrera

**ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA: 1.000

AURKIBIDEA



<i>Betikoak</i>	2	<i>Mahatsberriak</i>	16
<i>Gazi gozoak</i>	4	<i>Korrika Mahatserrian</i>	19
<i>Errezetak</i>	5	<i>Behetik gora, eskolen txokoa</i>	22
<i>Txiki-gazteak</i>	6	<i>Kirola, C.D. Zuharrak</i>	24
<i>Hileko argazkia</i>	7	<i>Kultura</i>	26
<i>Begoña eta euskerea</i>	8	<i>Komikia</i>	28
<i>Berton dugu!</i>	10	<i>Mendi ibilbidea</i>	29
<i>Bakarka, Satur Abon</i>	12	<i>Agenda</i>	30
<i>Inkesta. Maiatzaren 1a</i>	15	<i>Bertsoak</i>	31

Ba, eztakitt zer pasau zan, zapatu beten paseaten urten neuen, ta, derrepentien, jentie ta jentie ta jentie karrakan. Zer da hau, ba? Manifestaziñoa? Manifestaziñoa ixeteko pozik dabiltzez, barrez. Maratoie? Bez, ze, batzuk akabau ta beste batzuk segidu eitten zeurien. Ta danak gedarrez ta eskandaluen. Ta lenengoak egur zati bet eskuen, ta kotxiak ta furgonetak.... Ta nik, jakin in gure ixen dot aber ze ostidxe ixen dan. Ta pregunteu ein dot, ta esan dostie euske-

riegaittik dabiltzezela karrakan. Ta orduen pentsau dot: oin ezin de euskeraz ein paraute,ala? Karrakan ein bier ete da? Ze, karrakan zabiltzezela gatxa da berba eitea, gero! Euskeraz ta erderaz ta arameoan be bai. Total, euskeriegaittik bada, ba, batu daittezela trankil, ta euskeraz ein gure badaurie, ein deidxiela, baie kantsau barik, ganera, hainbeste jente be ez da junteu bier, ze, edozein egunien ta jente gitxiagoaz be trankilago eitten dozu. Ezta?

Firmaute: *Mahatzorro*



Bat barik bi

Alde bitatik datozkigu sorpresak, ofizialetik eta pribatutik. Ortografia kontuetan herren dabilta bietan, antza.

Udaberria, subentzio aroa da askorentzat, eta urteko aurrekontua diru laguntzei esker konpontzen dutenek agiri hauek ikusi dituzte seguruenik. Guk hemendik ohartxo bat baino egingo diegu EGA edo hizkuntz eskakizunak prestatzen dabilzenei; Bilboko Udalak horrela idatzi arren, EGA atera gura baduzue, *biLaTZearen* idatzi, bestela, matrikulako 2000 pezetak alperrik galduko dituzue.

Bestalde, poztekoa da ikustea zelan euskara azkenotan publikitatean gero eta gehiago erabiltzen den. Hala ere, atzerrira joan barik, hobe guke bertoko kontu batzuk konpontzea lehenago. Erdaraz honelakoak ez bailituzke inork erraz onartuko:

"Nosotros no usqamos ningun benefizio, solo qeremos haprender idihomas en el estrangero"



Edozelan ere, eztenarekin batera ezta ere eman nahi diegu STEPe bezala, euren propaganda eta errotulazioa egitera animatu diren enpresa eta erakunde pribatu guztiei. Ez dakigu euskarak gehiago saltzen duen ala ez, baina euskararen normalizazioan aurrerapausu polita da. Hala ere, ahalegina egin ezazue euskara azalean geratu ez dadin. Eta, jakina, euskara hori apurtxo bat gehiago zaindu.

Harpidedunentzako oharra

Urtebete pasatxoa da gure aldizkariaren lehenengo zenbakia agertu zenetik, dagoeneko 12. zenbakira heldu gara, hilean-hilean geure zitara heldu izan gara. Hasierako harpidetzak berritzeko sasoia heldu da beraz. Gogorazi nahi dizuegu etxera bidali dizuegun inprimakian datu guztiak ipini, harekin batera bidali dizuegun gutunazalean sartu eta bidali egin behar duzuela bertan hileroko etxean jasotzen jarraitzeko. Epea datorren maiatzaren 31n amaituko da.

Gogoratu bestalde eskaintza berezia. Lehenengo harpidedun batekin harpidetza berria eginez gero, prezio erdian izango duzue biok urtebeteko harpidetza, 500 pezetatan hain zuzen. Aprobetxatu ba!

hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
 Abizenak:
 Kalea: Zenbakia: Solairua:
 Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura

IRADATZIKO IHEABURURIK EZ BILBO (LAP) REN JINERKO AITORPENA

..... (1)

..... (2)

ZINPUAN AITORTZEN DU:

Egitentzako iherabururik garyem: da imlak irabaci-ko helburu: biatzen.

Etz digokion induriaz iran diran, atzertze hau rinatzen du:

Bilbo, ka ren (Hone eta Nargos)

(1) * Izena eta abizenak.
 (2) * Kurbakoa bada, bere izenari.
 * Itzarria bada, itzaritaren ardeziarizitan.



errezetak

TRIPAZORRIAK ENGAINATZEKO OTARTEKOA

Osagaiak

- Ogia, gosearen araberako neurrian
- Hirugiharrea
- Zartagia eta olioa ere beharrezkoak dira
- Piper berdeak


Zeuk prestatzeko era (amari edo neska-lagunari lanik eman gabe):

Frijitu lehenengo piper berdeak, nahi izanez gero osorik (xurtena kenduta, noski), eta bestela, bi zati edo gehiago eginda. Hori, gustoaren arabera. Zartagitik atera eta gazt apurtxo bat bota gainetik.

Olio horretan bertan, hirugiharre xerra batzuk frijitu. Zartagitik atera eta gehiegi xurgatu gabe otartean sartu bi osagaiak.

Ikusiko duzu, apuru bat baino gehiagotatik aterako zaitu.

On egin!



Txiki Gazteak aisialdi taldea

Txiki Gazteak Zurbaranbarri auzoan aritzen den aisialdi taldea dugu, haur eta gazteen heziketa arloan hain zuzen. Gaur egun 2. Barrutiko Gizarte Etxeko lokaletan dihardu, bere historiotoxoan zehar hainbat bilgune ezberdin ezagutu izan badu ere.

☞ Itxaso Perez

Ez da oso talde ospetsua izan, eta egun ez da haur asko mugitzen honen inguruan, baina oso garaia onak ezagutu izan ditu. 77-78 urte inguruan sortu zen.

Urte haietan giza mugimendu handia zegoen euskal gizartearen, eta auzo honetan islada zeukan Auzolagunen Elkartek, Kaixo konpartsak, Gurasoen Elkartek, Jubilatuenak eta aisialdi taldeak; adin guztietarako "eskaintza" zegoen.

Hasierako urte horietan begirale bolondres batzuk mugitzen hasi ziren haur heziketa proiektu baten inguruan. Haien artean denetarik zegoen: elizaren inguruko jendea, haur eta gazte heziketan arituak, arlo horretan interesa besterik ez zutenak, ... denek atsegin zuten arloa. Jende gaztea, oso, baina



arrakastaz atera zuten aurrera euren asmoa eta berehala haur, ume eta gazte pilo bat biltzea lortu zuten.

Jarduera larunbatetan izaten zen, adinaren arabera egindako taldeak ordu ezberdinetan bilduaz, leku arazoak zirela medio. Egungo bilgunea Gizarte Etxea da, leku txukuna, garbia... Baina hasierak bestelakoak izan ziren. Kaixo konpartsak Lezamako Trenbide Zaharra kalean lonja bat zeukan eta bertan biltzen hasi zen Txiki Gazteak taldea. Hautsa leku guztietan, fanfarreko "musika" tresna bitxiak nonahi... Geroxeago etorriko zen auzoko plazako egoitzara joatea. Hutsik zegoen lonja handi batetan sartu, garbitu, margotu eta antolatu, material gelatxoa eraki ... hor ere hauts piloa, baita talde guztiak egoteko arazoak ere. Honegatik auzoko elizako lokalak ere erabiltzen ziren batzuetan, kontu handiz, hori bai, bestela...

Larunbatero ekintza ezberdinak: tailerrak, eskulanak, talde dinamikak, jolasak, ... Hilean behin mendi iteerak egiten ziren, baita herrietara ere, inguruak ezagutzekotan. Oso interesgarria suertatzen zena urtero Bizkaiko Aisialdi Taldeen Elkartek antolatzen zuen

topagunea zen, non aisialdi taldeetan zeuden pertsona guztiek parte hartzen zuten. Jai egun bat zen arlo horretan zebilen beste jendea ezagutzeko eta lagun berriak egiteko. Dena den, egun hori urte gutxitan ospatu zen. Baina haurrek gustokoen zutena oporraldi inguruko kanpamendua zen.


Begirale belaunaldi bat joan, berria etorri, honekin batera taldearen

jarduera aldatuz eta aberastuz joan zen. Baina orain bostpasei urte krisi prozesu txiki bat ematen hasi zen, begirale ezagatik alde batetik, eta haur eta gazte ezagatik bestetik, gazteriaren interesak eta entretanimendu erak aldatuz joan direlako. Izan ere, ekintza eta jarduerak

ak murriztuz joan ziren, askotan larunbatetakoan soilik geratuz.

Egun sei begirale dago; 17-19 urte artekoak. Denak Txiki Gaztearen ibiliak. Urte honen hasieran zailtasunak besterik ez zuten ikusten, baina hilabeteak igaro ahala gauza asko egin dituzte: urte hasierako jaia, Olentzaro egunean abestu, irteerak UGPra, Inauteria ospatu, ... eta astean zehar ludoteka antolatu (asteazken eta ostiralero), larrua lantzeko tailerra (astelehenero), baita aerobika (asteartero). Orain arte oso iharduera puntualak egin badituzte ere, lehen egiten zen bezala larunbatero biltzeari berriz ekingo diote, bertaratzen den haur kopurua igo egin baita azken hilabetetan. Urrats hori eman ostean berriro kanpalekuak antolatzera joko lukete, baita irteera gehiago egitera ere. Iharduerak, jolasak etab., kalean egiten dituzte eguraldia lagun badute, bestela plazan duten lokal barruan. Ez dute lan makala! Aurrera segitzeko gogoia ere ez zaie falta, eta ia lortzen duten orain hogeit bat urte zeukan mugimendu berdina. Ez da gutxi!

bertin



*Errepideetako marrak
dira hamaika bateko
hamaikak bat egiten dute
urrungo joateko*

*Batekoak beti batuz,
Korrika goaz gure bidea gertatuz,
Pauso bakoitzeko hitz bat
Aspaltoan txertatuz*

*Ni eta zu, zu eta ni
Bat eta bat bi gara, bi
Goazen korrika,*

*Marrari segika
Bat eta bat hamaika
Zu eta ni euskaraz*

*Maddalen Lujanbio
(KORRIKA 11ren kantua)*

Bertonek Metxankatorretarrei egindako elkarrizketen bigarren zatia. Domeka goiza da eta Azkaraiko Etxezuri baserriaren atea zabalik topa dogu. Martin Mentxakatorre, solotik hartu barriko babak garaututen* dabil sugetean eta irripartsu hartuten gaitu, betiko moduan prest edonogaz berbalditxua eukiteko.

Martinez berba egitea, gustokoa dogu benetan. Bere bertoko euskera aberatsa eta kontateko daukazan mila historia entzuten gagozela, denpora pasaten danik be ez gara konturatuten.

⇒ E. Basozabal, I. Gaminde, I. Irastorza, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

Begoña eta Euskereia

Martin Mentxakatorre, Etxezuri baserrian bizi izan da eta Boluetako Santa Ana lantegian sartu zan 28 urtegea eta bertan jubilatatu zan 1987 urtean. Fabrikatik jubilatuta dago, baina ez baserriko beharretatik.

Berton.-Auzoko beste inor egon da Santa Anan beharreen?

Martin.-Bai, Boni Garmendia, bere aita eta anajie.

Berton.-Zure denporatan makinaria, zaharra izango zan ezta?

Martin.-Makinaria ordun zarra ta oin be zarra.

Berton.-Zelango produktoak egiten zenduezan hor?

Martin.-Ba tornoak be bai bankadak be itten* ziren. Oiñ* zilindroak baino ez. Ni fundiziñoan egon nintzen

Berton.-Nortzuk ziran horko nagusiak?

Martin.-Olabarri ta, Real de Asua ta, bat erre in zan bertan, injenerue.

Berton.-Eta zelan izan zan hori ba?

Martin.-Ba el año 63 hurrien* ni errelebotan nagola. Kutxariak buelta emon deu, 38 toneladako kutxarie eta zenbet erre ziren, injeneru bi, beste enpleu bet eta obreru bi, sei erre ta bost hil ziren. Atoan el Txiki bakarrik hil zan eta gero besteak. Kutxariari jausi yakon burriñ apur bet eta esaun* bueltarik emoten, bolantie atara eta kutxarie loka lotu zan*.

Berton.-Hainbat neke pasatuko zenduzan zuk be.

Martin.-Ba burriñe iketzaz fundiduten zan eta palakaz bota iketza barrure, eskuz. Burriñe mile ta hirurehun gradotan edo fundiduten dau.

TXAKOLINA

Martinek, fabrikako behargina izateaz aparte, baserriar peto-petoea da.

Berton.- Etxezurin txakoliña be euki dozue ezta?

Martin.-Mastidzek eta lagarra uki gun guk.

Berton.-Eta zelako mahats klasea erabilten zan?

Martin.-Guk matsa asko uki dogu, txakoliñ asko kosten dugu, honek.. erosten tzun txakoliñe....Emeteriok.Guk matsa baltza ta zurdixe uki dogu, en general baltza, bosteko matsa geituten tzun bateri, garaun txikerra eta bestie baño gozoago, apur bat ariño eiten zan bestea baño.

Berton.-Txakolina zelan egiten zenden?


Martin.-Lenengo batu sarañera edo baldiek, separau separau itteko.Gero bete ordun, bedar sarañera* eta hartu lepoan eta etxera.

Gero tejabanen tiñekuen zapaldu in be da anakaz saran bete bakotxien, lenengo zapaldu tiñekuen eta bokoira bota azal ta guzti, eta han euki beban* egosten hiru egun ze egoxi orduen e.. matsak azala gora botaten deu, haxi itten da. Zulo bat euki eun bokoiek, kendu kortxoia ta tiñekure eta gero ba alditan barrikera

Berton.-Eta barriken zenbat denpora?

Martin.-Ba barriken.. jakaba artiño!!!.Barriken bertan irikin itten dau, ze betetan dozu zuk barrikie eta egun bi edo hiru barru, hiru, lau hatzamar faltaten yakon barriro, eta ha bete in ber zen barriro txakoliñeaz. Irikitten barriek egoten zen igual e..hamabost egunetik gora igual hiru

aste be bai, eta han ba sikanen aste santu ingeru artiño edo holan egoten zan, hile bi hiruen



Berton.-Tolarea esaten zeuntzen?

Martin.- Tollarie geituten yakon, tollarie bai... izetan zen e sagardoa itteko estaka handi batatz Leginak Pedro, txakoliñerako be bai baia handiagoak ixaten ziren eta geidxago sagarretarako Gure lagarra manilla bat euki eren txikitxue, lengoan ttun, ttun, ttun esku batatz ibilten zan, ta gero beste bat eta bik aplastaeun sentelle modun matsa. klin klan goidxen ejie sapalduteko, txabeta bi ta botakan klik..txabeta bat, ta klak, batak igon eta besteak sartu, bat igon eta bestie sartu, ta bestiek bueltak emon eta gero soltetako, txabetak aldrebes imini.

Berton.-Sagardoa inork egiten eben hemen?

Martin.-Makalak iteñ eun sagardoa bai, honek...Pedro Leginak.



Etxezuri Baserria

GARIA

Berton.- Garia be euki dozue zuek?


Martin.-Ez tu ukiko ba?, garidxe asko hartu dogu guk, en los años cuarenta y tantos, hamen garidxe... ordun danok.

Berton.-Zelan hartuten zan garia?

Martin.-Garidxe gero josten arriganetan golpeka, garidxe atateko* galtzuri eta gero makinaz garbitan zan, uki genun makina bat garbitako, aixe apur batatz eta esku-gaz manille bat eta botakeran-botakeran, galtzue botaten dau alde batera ta garidxe lurrera.

Berton.-Zegaz ebaiten zan garia sasoi haretan?

Martin.-Garidxe igitidxeaz da txolak eiten tzun manajo bakotxari, euskada bi gari txola bakotxari, gero amarrau garidhez beragaz amarrten zan e?.hartzten zen lau bos, sei gari, buelta bat emon da klak, garidhez beragaz amarrau ta bota eta gero metatu, haregaz txolakaz metiek eta metillek iten ziren, metillek izeten ziren txikitxuek, metak igual... burdi bat baño geidxau. Txolak zutunik iminten ziren eta gero estutun estutun joan estutu artiño.



Martin bazkarie prestatzen

Garautu*= garaua atara

Itten*=egiten

Oin*=orain

Esaun*=esan eban

Loka lotu*=Solte geratu

Bedar saran*=bedarretarako sarana

Beban*=Behar zan

Atateko*=atarateko

Mahatserritarrok A8 autopistatako peaje dohakoaren alde

Eguzki talde ekologistak aurtengo aste santuan IV mendi martxari ekin dio "A8 autopistan peajerik ez" lemapean, eta bertara mahatserritarrok ere hurbildu gara.

☞ Arrate Diez

Hiru eguneko mendi martxa izan zen Eibar, Soraluze, Deba, Zumaia eta Zarautz inguruko mendietan zehar, A8 autopistaren ibilbidea jarraituz, eta peajearen zein autopistaren ezabaketa aldarrikatuz.

Laurogei bat pertsona bildu zituen ekimen honetan, mendiko ibilbidez gain, barre eta jai egiteko astia geratu zen. Eta zelakoa gainera!

Goizeko lehen orduan, gosalduta ondoren, motxilatxoak hartu eta mendian gora eta behera ibili ziren, beti ere, bazkaltzeko geldialdia eginez.

Bazkaldu eta gero, berriz ere, beste hiruzpalau orduko ibilaldiari ekin zioten martxako kideek. Hara zer nolako aurpegiak ikus zitezkeen Eibarren, bazkaldu bezain laster aulkitik altxatu eta mendian gora joateri eragozpenak jartzen zituztenen artean.

Azken finean, ez zeukaten beste erremediorik, hurrengo herrian baitzegoen afaltzeko aukera, beraz, denak

gorantz!

Lehen gaua Soraluzeko eskoletan pasa genuen, hilerri ondoan. Egia esan, hain zen txikia herri hura, ez zen etxe, eskola zein hilerria ondoan zeuden. Dena dela, oso esperientzia polita izan zen eta bertoko taberna guztiak jendez bete genituen.

Hurrengo goizean, gosalduta eta Debarako bidea hartu zuen martxak mendiz mendi. Eguerdian, Debako txoko batean bazkaldu eta beste behin ere motxilatxoak gainean Zumaiarako bidean abiatuz. Zumaian pasa genuen gaua estropadatarako kirol etxean.

Bigarren gaua zen honetan, jendeak zuen nekatuaren itxura disimulatzea zaila zen benetan. Halere, azken gaua zenez, gehienek muzin egin zioten nekeari eta kriston jai giroa sortu zen Zumaiako tabernetan.

Azken eguna heldu eta goizeko zortzi eta erdie-tarako jadanik batzuk dutxan sartuta zeuden, eta beste batzuek ajeari ezin eutsiz, hala nola esterilla eta zakua bildu eta azken txanparako prestatu ziren, psikologikoki bada ere.

Hiruzpalau

orduko martxa egin eta helmuga zen Zarautzera heldu ziren. Bertan, herri osoa zeharkatu zuen manifa egin genuen akto publikoa eta guztiz. Zarautzeko Arrano tabernan primerako bazkaria eskaini ziguten martxari agur esateko asmoz. Handik, norberaren motxila hartu eta bueltako bidea hartu genuen.



Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, abian!

Santutxuko hainbat gaztek hartu zuten parte Bilbon hasi eta Donostian bukatu zen Abialdian martxan.




Orreagatik Donibane Garazirako bidean. Muga oinez pasatu zuten.

☞ Zuriñe Uriarte

Bilbon izan zuen bere abiapuntua aurtengo Abialdian ibilaldiak, Martxoaren 20an.

50 bat gaztek hasi zuten martxa, eta egunek aurrera egin ahala, kopuruak gora egiten jarraitu zuen. Horrela, Iruñean, beste 50 bat gazte gehitu ziren eta Donibane Lohitzunera iritsi zenean, ia bi mila gazte zeuden zai ibilaldiaren azken hiru egunak egiteko asmoarekin. Hiru egun hauetako lehenengo gaua Hendaian igaro zuten, eta bigarrena, Lezon. Bertan, sagardotegi erraldoi bat antolatu zuten eta giro bikaina izan zen nagusi bi mila litro sagardo edaten ziren bitartean. Abialdian martxaren amaiera Donostiako Anoeta belodromoan egin zen, Jarrai erakundearen 20.urreurrena izanik honen ardatza. Martxan parte hartu ez zuten hainbat gazte hurbildu ziren Anoetara, belodromoa leporaino beteaz. Antzerki erako ekitaldi politikoa lehenengo eta kontzertua beranduago, goizaldera arte iraun zuen jaiak Donostian. Azken 20 urteotan arrakasta izan duten musika talde ezberdinek hartu zuten parte kontzertuan, eta euskal musikaren aintzindarizat har daitezkeen taldeen bertsioak ere izan ziren entzungai. Giro aparta, urtero lez, aurtengo Abialdian martxan.



Anoetako belodromoak aurkezten zuen itxura.



Lezoko akanpalekua

PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!



ANGEL

HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59



Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 473 10 65

«Nire helburua betidanik, emakumea marginaziotik ateratzen laguntzea izan da»

Aspaldidanik da oso ezaguna Satur Abon Begoñaldeko auzootan, talde eta koordinakunde ugarietan izan duen parte hartzeagatik. Azken urte hauetan ordea, Bagabiltzan egiten duen lanak beste ezertarako betarik ez dio uzten.



☞ **Jaione Letamendia**

berton: Zenbat urte daramazu Bagabiltzan lanean?

Duela 11 urte hasi ginen emakumea, aurkitzen den marginaziotik (langabezia, ikasteko aukerarik eza...) ateratzeko zer egin zitekeen aztertzen. IPESekin hainbat ikerketa soziologiko eta inkesta egin ondoren, Emakumearen Prestakuntza zentrua sortu genuen; hau da, eskola sozial bat. Lehenengoak, moda eta jantzigintza, administratza eta Lanbide Heziketako kurtsoak izan ziren. Txurdiragako Lanbide Heziketako eskolan utzi zizkiguten gelak izan ziren erabili genituen lehenak.

berton: Gaur egun zer egiten du Bagabiltzak?

Era guztietako ekintzak egiten ditugu. Formazio aldetik, behar bada osasun arloaren inguruko ikastaroak dira gehien ematen direnak. Gimnasia, artisautza, informatika, argazkigintza, musika, dantza... bezalako gaietan ere aukera zabala eskaintzen da. Iaz zine foruma sortu genuen. Horrek elkar ezagutzeko eta hitz egiteko bide oso ona ireki

du. Ludoteka bat ere badugu. Kultur ekintza eta irteera ugari antolatu ditugu: museoak ikusteko, Greziarako bidaia bat ere ari gara prestatzen... Leku bakoitzean, izaten den eskaera eta beharren araber

antolatzen dugu dena. Azken bolada honetan, langabezia aurkitzen diren gizon batzuk ere etorri dira zenbait ikastaro eta irteerara. Hamargarren urteurrena ospatzeko ekintzak prestatzen ere ari gara.

“Azken bolada honetan, langabezia aurkitzen diren gizon batzuk ere etorri dira zenbait ikastaro eta irteerara.”

Maiatzera arte gauza ugari ari gara prestatzen.

berton: Urte hauetan izugarri hazi da. Nola eman da emakume gutxi batzuk elkartzetik gaur egun arte izan duen aldaketa hori?

Lehenengo urtean 120 ikaslerekin hasi ginen eta gaur egun lau mila-

raino iritsi gara. Bilboko Udalaren laguntzaz hasi ginen. Guztia bere gain ezin zuela hartu eta, Emakunderengana zuzendu ginen. Txurdiragako, Otxarkoaga... inguruan hasi baginen ere, orain Bizkaiko 22 herritan gaude, bertako udalek eskatuta. Hasierako gutxi batzuk izateak eskaintzen duen laguntasuna eta xarma galtzen dira gauza horrela hazten denean, pixka bat dena burokratizatuz, baina oso pozik gaude urte hauetan zehar izan dugun erantzunarekin. Dirulaguntzak eta lokalak lortzea ere baldintza nahiko onetan egiteko aukera izan dugu. Auzo Etxeak eta eskola orduetatik kanpo institutu zein eskoletako gelak erabili ahal izateak asko laguntzen du.

berton: Zein emaitza izan du orain arte egindako lanak? Balio izan du emakumea lan munduan



sartzeko?

Guk nahi adina ez, baina hemen ikasi duten emakume batzuek, zenbait enpresatxo sortu dituzte Euskadiko Kutzaren laguntzarekin; autoenplegurako formazioan ere ari gara. Hemen ikasi zuten emakume batzuen artean geriatriko bat ere jarri zuten martxan Santurtzin.

Badakigu langabeziarekin ez dugula amaituko, baina formazioak bide asko irekitzen ditu beti, batez ere maila pertsonalean; eta horrek eragina izaten

eta errealitatea ezagutzea oso garrantzitsua dela uste dugu.

berton: Bagabiltza sortu aurretik ere ibilia zara emakumearen

aldeko lanean. Zer egiten zenuen?

Nire helburua betidanik, emakumea marginaziotik

ateratzen laguntzea izan da. Horretarako formazioa oso garrantzitsua dela uste dut. Eskola batean ematen nituen klaseak; talde bat ere osatu

du lanean ere.

berton: Euskarak ere bere lekua du Bagabiltzan, ezta? Zer egiten duzue?

Lehenengotik bostgarren mailara arteko eskaintza daukagu, eta AEK-k hartzen du horren ardura. Euskara eta euskal kulturaren inguruan ezjakintasun handia zegoela konturatu ginen. Hori dela eta, euskara ikastera animatzen ez diren artean ere saiatzen gara hemengo errealitatea ezagutzen, historia, kultura, herriak ikusi, euskal jaiak... Hemen bizi garenez, inguruko kultura

genuen. Gainera, Ollargango txabolak bota eta etxebizitza duin batzuk izatea lortu genuen. Horrekin pausu izugarri bat eman genuen. Haietarik asko Txurdiragako Julian Gaiarreko pisuetara etorri ziren.

berton: Hasieran arazo ugari izan ziren hor, ezta?

Beno, hasieran behar bada bai. Txaboletan bizitzen ohitua dagoen

“Gizona dela uste dut gutxien mugitzen ari dena, edo aldaketez gehiegi jabetzen ez dena”


jendea, bat-batean denak etxeetan sartzea nahiko gogorra da. Ez da prozesua banaka ematen denean bezala. Baina denboraren poderioz eta asko saiatzearen ondorioz, elkarbizitza jator bat lortu dugula esango nuke.

berton: Atzera begira jarraituz, Txurdiragako Drogaren Aurkako Koordinakundean ibilia zara. Herri mugimenduak eraginik izan du?

Inork eragin bazuen, hori herri mugimendua izan zen. Hamaika bider izan zen salatua arazo hau instituzioetan eta ez zitzaigun kasurik egin. Orduan auzokideak hasi ginen mugitzen. Behintzat, etxe eta portaletan, mundu guztiaren aurrean egiten zen droga trafikoa moztea lortu genuen, izugarria baitzen kanpotik ere etortzen zen jendetza.

berton: Nola ikusten duzu arazo hori gure inguruko auzoetan gaur egun?

Drogaren arazoa larria da. Margin-



jo ta ke
Otxarkoaga
euskaldundu arte!
Pa... Yak baditu alternatibak
demokratikoak noski!!



GABILTZA
PRENTSA BANAKETA

azioa, trapitxeoa... egon badaude, baina orain lasai bizi daiteke auzo hauetan; ez lehen bezala, gure aurrean inpunitate osoz egoten zen trafikoa hura. Hori pasatu zen eta oso ona ez bada ere, egiten dutena ezkutuan egin beharko dute.

berton: Politikan ere sartua egon zara beste garai batean. Bai. Beno, ni ez naiz inoiz oso politikaria izan, baina Gizarte Ongizate sailean aritu nintzen zinegotzi bezala. Lana gustura egin banuen ere, askotan barrutik baino, kanpotik lan gehiago egin nezakeen sentsazioa izan nuen.

berton: Mundu hori alde batera utzi duzu, ala berriro sartzeko tentaziorik ematen dizu?

Beno, orain kanpotik ari gara lanean. Astelehenero distrituko bileretara joaten gara. Urbanizazioan saiatzen gara batez ere. Lata handia eman ondoren espaloiak zabaltzea, peatoientzako bideak hobetzea eta beste hainbat gauza lortu dugu.

berton: Aurrera begira, zein helburu dituzu? Zerbait desberdina egiteko asmorik baduzu, edo gustora zaude Bagabiltzan egiten duzun lanarekin?

Orain egia esan, Bagabiltzak betetzen du nire denbora guztia, baina ni arte kritikaria naiz, eta horren inguruan egiten ari naizen tesia ere amaitu nahi dut halako batetan. Aurrera begira honetarako denbora pixka bat hartzea gustatuko litzaidake, izugarri gustatzen zaidan mundu bat baita, baina ez dakit nola ibiliko naizen.

berton: Joan den hilean izan zenuen emaku-mearen nazioarteko eguna. Nola ikusten duzu emakume-aren egoera?

Uste dut emakumea pauso handia ematen ari dela azken urte hauetan. Formazioa oso garrantzitsua da. Emakumea bere kabuz ibiltzen ikasten ari da. Gizona dela uste dut gutxien mugitzen ari dena, edo aldaketaz gehiegi jabetzen ez dena. Dena



den, ezin dugu ahaztu oraindik jasaten dugun marginazio bortitza. Lan munduan izugarria da jasaten den zapalketa. Emakumea asegurririk gabe, txarto ordaindutako lanak egitera bultzatua dago

GALDERA LABURRAK

- * - Pelikula bat: Mejer Imposible
- * - Janari bat: Legatza Bizkaiko erara
- * - Euskal Herriko herri bat: Elantxobe
- * - Amets bat: Emakumearen berdintasuna estamentu guztietan
- * - Euskal musikari bat: Benito Lertxundi
- * - Idazle bat: Ana M^a Matutes
- * - Liburu bat: Las Cartas de Van Gogh
- * - Mendia ala hondartza: Mendia, baina itsasoa hurbil
- * - Mendi bat: Anboto
- * - Bidaia bat: Ertamerika

oraindik ere.

berton: Konkretuki gure auzoetako emakumeen egoera nola ikusten duzu?

Ikusi duguna zera da, emakumeak lotura handiak dituela. Seme-alabak hazi baino lehen, asko eta askok guraso edo adineko senitartekoren bat du zaintzeko. Beraz, lotura bate-tatik atera baino lehen, beste gogor-rago batetan sartzen dira, berai-entzat ezertarako denborarik ez dutelarik. Horregatik ematen diogu garrantzi handia osasun arloko ikasketa desberdinei, hor izan baitezake irtenbidea emakumeak. Udaletxe edo Diputazioak 3. adinekoentzat eguneko zentruak babestu eta bultzatzeko konpromezua hartzen badute, alde batetik jende asko-entzat legoke hori lana, eta bestetik, emakume askok denbora izango luke berari interesatzen zaizkion gauzak egin edo ikasteko.

berton: Bilbo berri baten aurrean gaudela diote. Nola ikusten duzue aldaketa hau?

Aldaketa nabariak eman dira Bilbon azken urteotan, eta gure ustez oso positiboa izan da. Jendea ilusioarekin ikusten da eta hori ona da. Garrantzitsua, aldaketa horiek gutxi batzuen onerako izan ordez, eragina gizarte osoan izatea da. Gure ustez bide onetik doa. Guggenheim adibidez, hemengo ez den jendearen proiektu bat izan bada ere, ondo enfokatzan bada, geure geurea den zerbait izatea lortuko dugu.


I N K E S T A

Zer iritzi duzu Maiatzaren lehenari buruz?




SABIN Begoña

Uste dut oso inportantea dela langileentzat gure eskubideak behar bezala defenditzeko eta egun honetan, manifestazioan demostratu behar dugu bizirik gaudela.



PABLO Santutxu

Nik uste dut oso egun garrantzitsua dela gure eskubideak defenditzeko, eta langileok egun bat merezi dugula ezer ez egiteko.




LEIRE Santutxu

Ni ez naiz langilea, ikaslea naiz baina nire ustez, hala ere, egun hau ospatu beharrekoa da. Langileentzat oso garrantzitsua da, beraien arazoei aurre egiteko.



JOSE Txurdinaga

Niretzat oso egun garrantzitsua da, langileok eskubideak lortu ditugula ospatzen baitugu, baina beharrezkoa da ekitaldi guztietan parte hartzea.



LEIRE Santutxu

Nik uste dut langileen eguna jai egiteko egun bat dela, eskolarik gabe, lanik gabe, San Inazio eta Santiago egunak bezala ospatzeko.




FELIX Txurdinaga

Maiatzaren lehena ospatu behar da konkista bat delako langilariarentzat, euren errebindikazioak kaleratzeko eta manifestazioa egiteko.



ANA Txurdinaga

Nik uste dut egun garrantzitsua dela gure lana zaindu eta gure eskubideak defenditzeko.



JOSE FELIX Txurdinaga

Uste dut gezurra dela, esan nahi dut egunero izan beharko lukeela langilearen eguna. Ez dago paga estrarik, ez dago jairik; Zein da alde beste egunekin?



MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Plaza de Haroko auzokideek enparantza publikoa izatea eskatzen dute

Haro enparantzako auzokideek 402 sinadura bildu dituzte lekua udalaren eskuetan utzi eta publikoa izateko asmoa adieraziz. Gaur egun, mantenu gastuak auzokideek ordaintzen dituzte baina honen erabilera publikoa da.

Arazoa aspaldikoa da, baina orain punturik gorenean azaldu da hirigintzako teknikari batzuek lekuaren berriztapenaren beharra adierazi baitute. Honek, auzokideei 40 milioi baino gehiagoko inbertsioa suposatzen die. Gauzak honela, auzokideak kexu dira Bilboko

beste zergadunekin konparatuta gutxiagotasuneko egoera jasaten ari baitira. Auzokideek hartu nahi dituzten neurrien artean, ez dute alde batera uzten zergen ordainketa gordetzea notari-akten pean. Hori bai, udalari eman gabe.

Enparantza honetako auzokideen bozeramaileek adierazi dutenez, enparantza berrizteko gastuak bere gain hartzeko prest daude; beti ere, udalak egoera behin betiko konpontzen badu eta toki hau publikotzat hartzen badu.



Haroko auzokideek beste Bilbotarreko gutxiagotasuneko egoera salatu dute.

Musika eskolako gerentea postutik kendu dute

Jesus Arambarri Musika Eskola Munizipaleko gerentea den Jose Maria Urquijok bere postua galdu du. Musika eskolako gerentzia utziko du baina Musika-taldearen koordinatzaile izendatuko dute, eta honen ondorioz 4 urtetan 50 milioi kobratuko ditu.

Azken 10 urteotan Musika Eskolako gerentea izan denak, zentrua kudeatzeko eta zuzentzeko orduan kritika ugari jasan ditu zentruko gurasoen elkartetik eta HBko udal taldetik.

Honen aurrean, Bilboko udaleko kultura zinegotzia den Joseba Intxaurrek, soluzio moduan postutik kanporatzea proposatu du, Musika-taldearen koordinatzaile postua eskainiz. Honela, goi zuzendaritzako kontratu blindatuaren deuseztapena onartuko luke baina aurreko urteetako pareko soldata jasoz.

Musika Eskolako gurasoen elkarte eta HBko udal taldea erabaki honen kontra azaldu dira eta kontratua automatikoki deuseztatzea eskatu dute.

Errotonda batek Begoña, Bolueta eta Otxarkoaga lotuko ditu

Mahatserriko hiru auzo hauek errepide batez loturik geratuko dira 634 errepide nazionalaren gainetik eraikiko den biribilgu baten bidez. Lan hau, ekialdeko bariantearen obren barruan kokaturik doa eta berehala hasiko dira eraikitze lanetan. Errotonda, Ibarsusi parean kokatuko da eta ondorioz Santutxu eta Bolueta doan trafikoa errepide honetatik pasatzea ekidindu da. Honetaz gain, Begoñarako sarbidea erraztuko du Zumalakarregi etorbidearen bidez.

Nahiz eta obrak hasita egon, lanaren zati nagusia uda partean burutuko da.

Etorbizunean, Ibarsusiko biribilguak ekialdeko aldearen tarte zentralarekin bat egingo du (Bolueta ingurabideari dagokiuon tartearekin).

1999ko apirila - 12. zkia.



Projektu honek harrera ona izan du auzokideen artean.

Enparantza berri bi eraikitzen ari dira Txurdinagan

Udalak, Txurdinagako Gabriel Aresti kaleko 30, 32, 34, 36 zenbakien aurreko ageriko lekuan eta kale bereko 17, 21, 27, 29 zenbakien aurrean enparantza berri biren lanak hasi ditu. Orain arte belarrez beteriko lekuak zirenak etorkizunean enparantza bihurtuko dira.

Enparantza biek (handienak 1.000 metro karratu izango ditu) zona berdeak, pasealekuak, eserlekuak, argiak eta umeentzako jolas lekuak izango dituzte.

Bilboko udala eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatutako proiektu honen kostua 125 milioikoa izango da.

Bi enparantza berrien inaugurazioa urte bukaerarako aurreikusita dago.



Fonotekaren erabiltzaile gehienak gazteak eta gizonetzkoak dira.

Kexak anbulategi berriaren ondorioz


Boluetako zentru berrira egindako mediku eta gaixoen aldaketak kexa ugari sortarazi ditu. Honen adibide, anbulategia ireki eta egun gutxitara Plaza de Haroko mostradorean jarritako kexuak izan ziren.

Osakidetza, 20.000 gutun baino gehiago bidali zituen aldatetari buruzko informazioa eskainiz. Baina aitortu dutenez, berandu iritsi dira eta arinago bidali behar ziren. Gainera, kasu askotan informazio gutun horiek ez dira heldu eta ondorioz kexa asko izan dituzte. Osakidetza ziurtatu dutenez, denborarekin eskaera gehienak onartuak izango dira.

Otxarkoagako supermerkatu "txinatarra" errehabilitatuko da

Otxarkoagako zentru komertziala birgaitzeko ia 45 milioi pezeta erabiliko dira (44.760.960 pezeta). Lan hauek, Lan Ekintzatik bideratuko dira eta Otxarkoagako Hirigintza plan pilotuaren parte dira.

Berrikuntzarik deigarriena 3 geltoki eta 16 metro izango dituen igogailu panoramikoaren eranspena izango da. Honetaz gain, hiri altzairuak, jesarlekuak, zaborrontziak eta kanpoko argiak jarriko dituzte bertan. Honekin, Mahatserriko auzo honetako komertzioaren sektorea indartu nahi da.



Supermerkatu "txinatarra" deritzotenen kanpoaldea.

Begoñako udalategiak CD gehiago izango ditu

Begoñako udalategiko fonotekak diska konpaktu gehiago izango ditu epe laburrean. Dagoeneko 1.000 inguru izan baditu ere, gutxi barru 500 gehiago erosiko dira eta hurrengo tandarako beste 500 aukeratzeko ari dira. Honela, urte bukaera, fonotekak 2.000 titulu inguru izango ditu. Orain artean, eskari gehien izan duten CD-ak pop rock, soinu bandak, new age, euskal musika eta musika klasikoko ataletakoak izan dira.

Berritasun gisa aipatu beharra dago, liburutegiak CD ROM bilduma batez osatutako atal berri bat martxan jarri duela. Momentuz 80ren bat lortu dituzte. Eta gainera, nagusien irakurketa gelarako bi ordenagailu erosi dituzte eta gaztetxoan irakurketa gelarako beste bat. Etorbizunerako, ordenagailu hauen bidez, erabiltzaileak internet-en sartu ahal izatea espero da.

Otxarkoagako bariantearen obrak ez dira geldituko

Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenak obren gelditzeari ezetza eman ondoren, Otxarkoagako Familia Elkarteak udalari hiriaren interesen alde jokatzeko eskatu dio.

Auzitegiak ez ditu lanak geldiarazi interes publikoari ondorio larriak ekar diezazkiokeela uste baitu.

Hemendik aurrera, Otxarkoagako Familia Elkarteak bozeramaileak ziurtatu duenez, 11 hilabete besterik ez zaizkie geditzen obrak bukatzeko; dena dela, oraindik errektifikatzeko garaian daudela uste du. Auzo elkarte honetatik, sententzia errekurritu egin dute eta Udalak arazoan eskua sartzea espero dute. Hala ere, orain arte Udaleko alderdi politiko ezberdinekin izandako kontsultek ez dute espero zen emaitzarik izan.

Orokorrean, elkarte honetan uste dute autobide bat ez dela egokia Begoña nekazaria izan zeneko baserri ugari geratzen diren ingurune baten. Gainera, obrek lurjauzi eta lur mugimendu ugariarekin baserriarrak eta orokorrean auzokideak kaltetu dituztela errepikatu dute behin eta berriz.




Zaborrontzi berriak ontzien berziklapenerako erabiliko dira.

Zaborrontzi berrien ezarpena

Bilbon zaborrontzi berriak jartzen hasi dira. Hauek, horiak dira eta ontzien berziklapenerako erabiliko dira. Zaborrontzi berri hauen ezarpena hondakinen kudeaketa planaren bigarren faseari dagokio. Fase honek zazpi hilabete iraungo ditu eta orotara 2.100 zaborrontzi ezarriko dira (2.000 k pedala izango dute). Guzti honek 1.800 milioiko kostua izango du.

Esan beharra dago, lehenengo zaborrontzi horia Otxarkoagako Kepa Enbeita plazaren inguruetan jarri zela. Azkenaldian, berriz, Santutxun hainbat jarri dituzte. Honela, bi auzo hauek zaborrontzi berriez hornitutako lehenengo auzoak izan dira.



Begoñan, urtero, 120 bikote ezkontzen dira.

Begoñan, bertoko eliztarrak izan barik, ezkondu nahi dutenekin urriaren erdialdean bilera egingo da. Bertan, ezkondu nahi duen bikote bakoitzeko papertxo bana

sartuko da poltsa baten. Orduan, ezkongaiak papertxoak atera eta suertatzen zaien zenbakiaren arabera eguna eta ordua aukeratu ahal izango dute.

Otxarkoagako dendariak laguntzak jasoko dituzte

Lan Ekintzak, Otxarkoagako merkatariei laguntza ekonomikoak emango dizkie. Laguntza berri honek, aurretik eskainitako formazio ikastaro eta aholku zentruarekin bat egiten du. Laguntzen programa berri hau, Otxarkoagako hiri pilotu proiektuaren barruan kokatuta dago eta bertako denden berriztapen edota berkokapena zuzpertz nahi du. Horretarako, laguntza ekonomikoen plan bat landu du. Laguntza hauek, merkatariek inbertitutako gastu totalaren %50raino helduko dira, 600.000 eta 1.300.000 pezetatiko mugarekin. Muga hau, erreformaren arabera eta enpresa horiek dituzten kontratatutako langileen arabera izango da.

Otxarkoagan kokatutako denda edo enpresa komertzial guztiek jaso ahal izango dute laguntza hau, beti ere bere negozioaren hobekuntzarako honelako gastuei aurre egin behar badiete: jarduera komertzialerako erabilitako lokalaren erreforma, betearazten duen iharduerarekin harremana duen altzari eta hornikuntzaren erosketa edota komertzioaren leku aldatetari dagozkion gastuak (lokal berria auzoan bertan kokatua baldin badago).

Lan Ekintzak egindako ikerketaren arabera, neurri honek 111 dendetan izan dezake eragina.

Jabeen eta beren maskoten lehiaketa Txurdinagan

Bihotz alai elkarteak gaztetxoek ihardunaldiak antolatu zituen Txurdinagan. Ekitaldi ezberdinen artean deigarriena laguntza animalia eta euren jabeen festa izan zen. Lehiaketa berezi honetan, 50 pertsona inguruk parte hartu zuten. Partehartzaileak, beren maskotekin, Txurdinagako Artazuriña kalean bildu ziren eta lehiaketa ezberdinetara aurkezteko aukera izan zuten: mozzorro onena, iletsuena, gauza gehien egiten dakiena, txikiena, belarri handienak dituena, jabe eta maskota gazte eta zaharrena, jabearen antza gehien duen maskota...

Irabazleek oroigarri gisako argazkiaz gain oparia ere jaso zuten.

Gehienak gazteak edo umeak izan ziren arren nagusiek ere parte hartu zuten. Honela, partehartzaile gazteena 4 urteko neskatila bat izan zen eta zaharrena 82 urteko gizon bat.

Antolatzailea izan zen Guillermo Olaortua albaitariak esan zuenez, ideia Kataluniako lankide batek proposatu zion.

BAT ETA BAT HAMAIKA, MAHATSERRIAN

DENOK EUSKARAZ!



Ehundaka, milaka, milioika... pertsonak egin zuten korrika mahatserriko kaleetan zehar eguerdiko lehen orduetan, hamaikagarren korrikari primerako harrera egingez.

☞ Arrate Diez

Baziren Bilbotik zetozenak, hainbat kilometro korrika bizkarrean zeramatenak, baita mahatserriko kaleetan korrikan murgildu eta Galdakaoraino heldu zirenak ere, baina Iturriaga kalean behera abiatu eta Txurdinagan korrika egiteari utzi zutenak ere. Korrika txikiak ere, berezko garrantzia izan zuen Mahatserriko kaleetan zehar. Denek egin zuten topo aurtengo 11. Korrika honetan eta, sinesten ez baduzue, argazkiei begiratu besterik ez duzue.



Txikienak ere parte hartu nahi zuen nahiz eta bere buruarekin ere ezin aurrera egin. Karmelo kalea jendez gainezka, korrika txikian guraso eta senideak beti animoak ematen.




KORRIKA lehenengoa

Bat eta bat, a ze bi!



Otxarkoagak ere bere kilometroa eduki zuen. Aldats behera gainera!

1999ko apirila - 12. zkia.




Berton Xabier Herrera Mikel Arrese


hontzat




Bertokook ere hamaika gara.



Eta Santo Domingon gora, mendizaleak baino hobeto, nor?



Batzuk aurretik eta beste batzuk atzetik, Santutxu zeharkatu zuen KORRIKAK



Bi, hiru edo lau hankatan, hamaika.

Iruztargi: Karmelo ikastolan emakumeen eskubideen alde borrokan

Martxan denbora askorik ez badarama ere, Solokoetxeko ikastetxeko emakume talde hau lanean dabil, eta jada egin du ekitaldiren bat edo beste. Emakumeen arazoa ez dela etxekoandreei dagokien arloa soilik erakusteko baliagarri da talde honen lana, gazte-gaztetatik, ikastetxetik hasi baitira emakumeen eskubideak defendatzeko borrokan.

Denbora gutxiko bizia duen arren, Iruztargi emakume taldea ekitaldiak egiten hacia dela esan dugu arestian. Martxoaren 8aren inguruan eginiko bertso saioa dugu horren adierazgarri. Aspaldi igaro den arren, gure orrietara ekarri nahi izan dugu ekitaldi hura, ez baitzen nolana izan. Oihane eta Onintza Enbeita bertsolariak izan ziren Solokoetxe ikastetxean, eta elkarrizketa bat ere egin zien talde antolatzaileak. Hona hemen bertokoek bidali diguten elkarrizketa. Eta eskerrik asko egileei, gutaz gogoratzeagatik. la gainontzekoek exenplua jarraitzen duzuen!

Iruztargi: Noiz eta nola hasi zineten bertsolaritzan?

Onintza: Esan behar da, guk familian bertsolarako giro ona izan dugula beti; aitona, osaba... etxean bertso giroa nabari izan dugu betidanik. Gero, bertotan hasi, 8-9 urterekin hasi ginen bertso eskolara joaten, eta ordu-tik gaur arte, apurka apurka bertsolaritzan munduan sartu gara.

Iruztargi: Emakume izateagatik aurkitu al duzue oztoporen bat?

Oihane: Gaur egun emakumeak izateagatik ez dago inongo oztoporik bertotan egiteko. Gure artean behintzat nahiko normala da, nahiz eta kanpotik jende askok oraindik arraro bezala ikusten duen. Diskrimi-

nazio positiboa jaso izan dugu beharbada batzutan, saio batzutan emakume bat eraman nahi zutelako eta ez gizonetzakoak bakarrik; orduan, batzutan aukera gehiago izan ditugu beharbada. Bestalde, askotan gaia jartzer-akoan, ez dakit noren laguna, bestearen ama eta horrelako gaiak jartzen dizkigute, baina... bestela ez. Iruztargi: Betiko gaiak, hau da, tipikoak jartzen al dizkizute?

Onintza: Askotan bai. Saio askotan, gizon bi daudenean eta ez dutenean beste erremediorik, ba tipo bat izango da ama eta beste bat semea edo neska lagun, mutil lagun... baina neska bat baldin badago saio batean, ama, nobia, amuma eta antzeko papalak beti jausten dira bere gainean.

Iruztargi: Nahikoa al da betso eskolara joatea bertsolari izateko?

Oihane: Gauza guztietan bezala, edo pinturan, edo antzerkian, edo beste edozer gauzetan bezala, landu ezkeru lortu daiteke. Egia da berezko zerbait izan behar duzula, ez dakit, erraztasun apur bat izan behar duzula. Deporterako ere gorputzez behar duzu zerbait eta arterako ere behar duzu... ba hemen ere berdin. Bertoslaria egin egiten da. Jaio, jaio daiteke bertsolari senarekin, baina ez baduzu lantzen, alperrik da.

GOIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

Telefonoa:
(94) 669 32 79
Mugikorra:
908- 45 16 22

Bertso saio politaren bidez lagundu zuten Onintza eta Oihane emakumearen aldeko borrokarari orohar eta Iruztargi taldeari bultzada ematen. Hona hemen bertan botatako pare bat bertso:

Gaia: Oihane etxeko lanak eginez ogia irabazten duzu emakume bat zara. Istripu baten ondorioz eragozpenak dituzu lanean jarriatzeko eta hori dela eta auzitegira zoaz epaileak honen berri jakin dezan. Onintza, zu berriz inoiz etxekolanetan aritu ez zaren epaile bat zara. Zure esku dago azken epaia.

Oihane:

Nahiz ta kanpoan lanean egiteak badaukan bere xarma etxeko lana izan zen niri tokatu zitzaidan plana ta zortzi ordu baino gehiago egun guztitako zama nonbait kobratu beharra daukat debalde egindako lana


Onintza:

Zoritxarrean zuri istripu bat egin zaizu tokatu ta orain hemen mugitu ezin baina zeurea eskatu lan egin arren, estatutuari ez diozu aportatu ta orain bere kontura ezin duzu ezertxo kobratu

INMOBILIARIA
Gelaya
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...
Iturriaga, 92
Telefonoa. 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo


BASTERTXU

TABERNA
Ricardo Bastida plaza


ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu


Bikotz
ARROPAK ★
ZILARRA ★
OPARIK ★
Dort Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax. 473 42 88 • 48004 Bilbo

Otoio
Mendi
Sta. Klara


Aitiku

C.D. ZUHARRAK : GURPILEN GAINEAN DABILEN TALDEA

Aurtengoa lehen mailako aurreneko urtea da. Taldearen politika harrobia lantzea da. Jaitsiera ekiditeko play off-ak jokatuko dituzte

⇒ Unai Cuevas

C.D. Zuharrak saskibaloit taldeko historia 6 urtekoa da. Aurretik, taldea C.D. Minusválidos Bilbao izenpean aritzen zen. Baina saskibaloit saila Bilboko ezinduen elkartetik banandu zen, eta geroztik Zuharrak izenarekin funtzionatzen du.

Taldea osatzen dutenen erdiak gutxi gorabehera beren bizitza gurgil-aulkian egiten dute. Besteek, gabezi ezberdinak eta ebaketak dituzte eta nolabaiteko bizitza normala egiten dute.

Diru laguntza edo subentzioen aldetik gaizki ibili dira, aurtengoa ez dituztelako. Aurreko urteetan, diru laguntza ezberdinak jaso izan dituzte. Baina hala ere, subentzioen gaia itzelezko kalbarioa izan da taldeak iraun izan dituen 6 urteotan.

Aipatzekoa da, iaz komunikabideen presioaren bidez materiala berritzea lortu zutela. Jasotzen diren diruarekin ekipoa teknikoki hobetzea lortu dute aurtengoa : materiala berritzea lortu eta gabetuei nolabaiteko laguntza eskaini zaie.

Taldea osatzen duten jokalarit gehienak Bilboko auzo ezberdinetakoak dira eta badaude Arrigorriaga eta Galdakaokoak ere. Momentu honetan, taldean 12 jokalarit daude eta lehendakariak aitortu zigunez 6 edo 7 gehiagorekin hobeto egongo lirake. Honi aurre egiteko, saskibaloit eskola eratu dute 2 edo 3 urtetara jende aldetik emaitza ona lortzeko asmoz. Kontutan izan behar da, taldean sartu diren batzuk hasiberriak direla eta ondorioz baloia eta aulkia kontrolatzen ikasi behar izan dutela. Beste batzuei, aldiz, saskibaloitaren printzipio edo arauak erakutsi behar izan dizkiete.

Orain arte jarraitu duten politikaren arabera, fitxaketak alde batera utzi dituzte eta harrobia lantzen zentratu dira. Bestalde, momentuz ez dute bazkiderik egin baina datorren urterako bazkideak egitearen esperantza azaldu zigun presidentek.

C.D. Zuharrak-en egoitza, Bizkaiko gutxitu fisikoen federazio koordinatzailearen bulegoetan aurkitzen da, federazio hau euren kolaboratzailea da.

Kirol arloko ikuspuntua


Denboraldi honetan, taldea lehen mailan aritu da (saskibaloit normalean LEB ligaren parekoa) beste 11 talderekin batera. Sei ekipoko bi talde daude lehenengo mailan eta Zuharrak talde horietako batean azkenengo bien artean sailkatu da. Honen

ondorioz, jaitsiera ekiditeko play off-ak jokatuko beharko ditu. Jaitsierako play off-a Tarragonako Costa Dorada-ren aurka jokatuko du eta esan beharra dago entrenatzailea baikor azaldu zela liga erregularrean talde honen kontra jokatutako partidu guztietan garaile atera baita talde Bilbotarra. Beraz, maila mantentzea nahiko eskuragarria dute gauzak asko okertzen ez badira.

1999a, lehen mailan jokatuko duten aurreneko urtea izan da eta nahiz eta postu on batean geratzeko aukera izan duten esperientzia falta agerian geratu da. Entrenatzailearentzat esperientzia falta aurtengoa denboraldiaren analisis egiterakoan gauzarik garrantzitsua izan da. Entrenatzaileak aipatu zigunez, momentu honetan duten taldearekin eta fitxaje pare batekin oso talde ona lor dezakete, nahiz eta esperientzia maila hori falta izan.

Hurrengo denboraldiari begira, ohorezko mailara (saskibaloit normalean ACB-aren parekoa) igotzearen esperantza azaldu zigun entrenatzaileak. Aurtengoa bizitako esperientzia oso positiboa izan da beraietzat eta taldea pixka bat finkatzen bada helburu hori lor dezakete. Dena dela, taldearen erabateko finkapena taldetik alde egin dutenen eta etorritako berrien ondorioz ezinezkoa izan da. Beterano bat joateak eta berri bat sartzeak, hasiberriari erregelak erakutsi behar izatea eta liga konpetitibo batera egokitzea suposatzen izan die. Honek, lan gogorra suposatzen du, eta era berean taldearen osaketa eta finkapenari oztipoak jarri izan dizkio.

laz komunikabideen presioaren bidez materiala berritzea lortu zuten



Txurdinagako kiroldegian entrenatzen dute astelehen, asteazken eta ostiral arratsaldeetan.

OTXARKOAGAKO EUSKAL TXOKOA

Gure auzoan ekinean

*Ikastaroak, irteerak,
kultur ekitaldiak...eta
beste hainbat gauza
antolatzen ditugu*

Nahiz eta postu on batean geratzeko aukera izan esperientzia falta agerian geratu da

Gurgil-aulkiko saskibaloitaren berezitasunak

Oinarrian, erreglamentazioa saskibaloitaren berdina da. 3 aldakuntza txiki daude:

- Ez dira bikoitzak edo dobleak existitzen. Nahi beste inpultso edo bultzada eman ahal diote aulkitari eta nahi adina aldiz jokatuko ahal dute baloia.
- Aulkia baldintzatzen duena. Hau da, aulkian zoazenean ezin zara bat-batean gelditu eta ondorioz kontaktuak zilegiagoak dira.
- Kantxaratutako taldearen puntuaketa. Gabezi mota ezberdinak daude eta ondorioz gabezi bakoitzari puntuaketa bat ematen zaio. Beraz, ezin daiteke kantxaratu 14,5 puntu baino gehiagoko talderik. Honela, puntuazio altuko (gabezi txikiagoa) eta puntuazio txikiko (gabezi handiagoa) jokalaritak nahastu beharra dago.

Zure
publizitatea hemen

9 4 4 7 3 5 4 4 8

Txirula Mirula

Noiz jarri zen martxan Santutxun, Bizkaiko Xirula Mirula musika eskola?

Bizkaiko Xirula Mirula orain dela zazpi urte sortu zen. Karmelo ikastolako guraso talde batek, beraien seme-alabek, musika euskaraz ikasteko aukera eman nahi zieten eta, deitu egin gintuzten behar hori egiteko. Musika euskaraz irakastea zen gure helburuetatik bat baina ez edonola, baizik eta umeentzat egokitutako metodo bat erabiliz. Metodoak umeentzat aproposa izan behar zuen eta bestalde, gure herriko kultura musikal aberatsa helarazteko baliogarria.

Horrexegatik abiatu ginen Donostiara, bertako Xirula Mirula musika eskolara. Han aurkitu genuen gure lana burutzeko behar genuen guztia eta oraindik ere horretan dihardugu.

Baina Donostiako Xirula Mirula musika eskolakoei metodoa eta materialaz gain, beste zerbait ere zor diegu, gure irudimena askatasunez musika eskolaren zerbitzura jartzeko laguntza eta bultzada.

Donostiako Xirula Mirulakoekin batera, Euskal Herriko Xirula Mirula Musika Elkarteak sortu genuen, gure lana Euskal Herri osoan zabaltzeko asmoarekin, eta hori da gure aldetik Bizkaian pixkanaka egiten hasi ginena: Zaratamora eta Santutxuko auzora gure ideia zabalduz bertako ume guztiei Xirula Mirulan matrikulatzeko aukera emanaz.

Gaur egun musika metodo eta eskola asko daude. Zertan da ezberdina Xirula Mirula musika eskola? Guk proposatzen dugun heziketa musikarako, ezinbestekoa ikusten dugu haurren munduan sartzea eta berarentzat ulergarriak eta zentzudunak diren espresio bideak erabiltzea: ipuinak, kantzak, mugimendua, dantza, eta azken batean jolasa.

Guzti honegatik esaten dugu guretzat musika hezkuntza haurren beharrak erantzuteko dagoela eta ez alderantziz; kontutan eduki behar dugu haurren sormena eguneroko eginkizunetan adierazten dela: margozterakoan, jolasean, plastilinaz ari direnean... eta musika (komunikatzeko daukan indarragatik) oso baliogarria da

sormen hori zuzentzeko eta sendotzeko.

Oso neska langileak zaretela begibistan dago, musika eskola, jaialdiak...Baina zein da zuen funtsezko iharduera?

Guretzat, izatez garrantzitsuena musika eskola da. Eskola desberdinetan orduz kanpoko musika klaseak ematen ditugu, gaur egun Santutxun eta Zaratamon.

Eskolaz kanpoko klaseak emateaz gain, aukera ezberdinak aprobetxatu ditugu gu ezagutzera emateko. Adibiderik garbiena "kafe Antzokia" koa da.

Igande arratsaldetan antolatzen dituzten haur jaietariko

batzuk guk antolatu ditugu. Jaialdi hauen oinarria musika da, eta musikaren inguruko jarduerak: dantzak, jolasak, kantzak... Helburu nagusia umeen parte hartzea da, eta beraien ondo pasa dezatela gurekin batera.

Eta etorkizunari begira, zer?

Jatorrizko Xirula Mirula musika eskola Donostian kokatuta dagoela esa dugu lehenago eta luzarora begira gure asmoa Euskal Herri osora zabaltzea litzateke,

lurralde bakoitzean eskola bat aurki genezakeelarik. Baina helburu hau luzarora begira badugu ere, hurbilago badugu orin dela ia bi urte aurrera emandako pausu bat, auzora zabaltzea alegia. Hemen, santutxun, klaseak Karmelo ikastolan ematen baditugu ere, beste eskoletako haurrek, orain dela bi ikasturteetik, gure klaseetara etortzeko aukera izaten hasi dira.

Auzora begira, Begoñako auzo etxean Ekainean antolatzen dugun gure metodoari buruzko batzar informatibo baten bitartez, auzoko ahalik eta ikasle gehien gugana hurbiltzea dugu helburu nagusi. Horretan arituko gara kurtso amaiera honetan ere, gure musika eskola auzora eta gertuko auzoetara ezagutarazi nahian.

Bizkaiko Xirula Mirula musika eskolako sorreran hainbat lagundu gintuen lagun bati agur bero bat bidali nahi genioke: Aupa Tasio! Ainhoa, Kristina, Iratxe, Iruri eta Igotzen partetik besarkada handi bat.



Santuskaratxu 99



Asapala Kultur Elkarteak -Santutxuko euskara elkarteak-, eta Bai Euskarari batzordearen eskutik, udaberriko kultur ekitaldi honen beste edizio bat datorkigu. Aurtengo leloa *2000 arrazoi euskeraz bizitzeko izango da*. Euskal kulturaren agerraldi ezberdinak izango ditugu maiatzaren 14tik 28ra Mahatserriko parte honetan.

Behin-behineko egitarauan honako ekitaldiak ditugu: Maiatzaren 14an **Iparraldeko bertsolariak** Santutxun, bertsoaioa eta afaria. 17an **Mattin** komikilariak komiki-tailerra egingo du, eta 28ra arte haren erakusketa izango dugu ikusgai Begoñako Udaltegian. Hilaren 19an bestalde, mahai-ingurua egingo da, "ETB aztergai". 24an **Bibiñe Pujanak** ipuin kontalariak ume eta nagusientzako

saioa egingo du. 25ean beste mahai-inguru bat izango dugu "Komunikazioa 2000etik aurrera". 20an literaturaz jardungo da, "Idazle barriak ala literatura barria" eztabaidagai, bertan, **Unai Iturriaga**, **Iñigo Aranbarri**, **Igor Estankona** eta **Urtzi Urrutikoetxea** izango dira. 28an, akabera emateko, **Mikel Urdangarin**ek disko barria aurkeztuko digu Txurdinagako Beheko Institutuan, bertoko **Haik Hor** talde berriaren debut-agaz batera.

ETB, Unai Iturriaga eta Mikel Urdangarin izango ditugu protagonista, besteak beste, Santuskaratxun 99an



Santutxuko jaietarako kartel lehiaketa eta bertoko taldeen kontzertua

Santutxuko Jai Batzordeak, urtero legez, jaietarako kartelen lehiaketa antolatu du. Parte hartu gura duten guztiek honako arauok hartu behar dituzte kontutan: neurriak 50 x 30 zm. dira, eta kolore guztiak onartzen dira. Karteletan SANGUTXU agertu behar da eta Santutxu edo eta euskal kulturaren erreferentziaren bat izan behar du. Saria 25.000 pezetakoa da, eta kartelak Santutxuko AEKn (Arbidea 21) utzi behar dira. Informazio gehiago gura izanez gero, 944117656 telefonora deitu.

Bestalde, jaietako bertoko taldeen kontzertuan jo gura dutenek maiatzaren 30ra arte dute epea izena karteletan zehazten den leketan emateko. Ohi den legez, izena emaneko guztien artean zozketa egingo da.



PUNTAKO KIROL MARKAK

SANTUTXU SPORT

KARMELO, 9

Tfona: 412 37 01

SANTUTXU

SANTUTXUKO EUSKAL TXOKOA

Iturriaga 55, 1 ezk.
48004 Bilbo
tfnoa. 944 73 54 48
asapala@eusnet.org



"LAGUNTZA"



Ni Burma naiz. Naga naiz. Indiako iparraldean bizi gara, baina jatorri birmaniarra dugu. Hori dela eta, Indiar ejerzitoak gutako 150000 kide erahil ditu azken 30 urteotan. Horrez gain, gure emakumeak bortxatu eta torturatu egin ditu, eta atzerritarrek debekatuta dute gure lurretan sartzea.



Nire izena Sivan da. Kurdoa naiz. Turkian, kurdoz hitz egitea debekatuta dago eta 1983 urtetik hona, Saddam Husseinek gutako 400000 kide erahil ditu. Bizirik jarraitzen dugunok, O.N.U. -k Iraq-en egiten ari den embargo ekonomikoaren ondorioz, gosez hiltzear gaude.



Kafi dut izena. Nubiarrar naiz. Orain dela 50 urte, 1300000 nubiar bizi ginen Sudan erdialdean, baina orduan, gobernuak, ejerzitoaren laguntzaz, gure lurak hartzea erabaki zuen. Gaur egun, 200000 nubiar baino gutxiago gara.




Fernando deitzen naiz. Mendebaldeko Timorrekoa naiz. 1975 urtean Indonesiak eraso egin gintuen, herritaren heren bat erahil zuen eta gaur egun, gure emakume eta haurrak antzutzen ari da.

Javier Solana eta O.T.A.N.-i zuzentzeko mezu bat daukagu...



Tres Dedos (1157 m.) Ciliezatik (Burqos)



Cilieza, Menako bailarako herri txikienetariko bat da. Kotxez joaten bagara, Villasana de Menara heldu baino lehen Mercadillo herria dago. Han, ezkerretik Artziniagara doan errepidea ikusiko dugu, horren eskumatera beste errepide bat dago, asfaltatuta baina estua. Hortik joango gara Ciliezara (4 km.). Behin Ciliezan, kotxea bertan utziko dugu, eta herriko azkenengo etxearen ondoan dagoen pista batetik abiatuko gara oinez. Handik bost minutu bi zelaien artan egurrezko ate txiki bat aurkituko dugu. Hemen hasten da bidea, hasieran nahiko estua, sasiz eta arbolaz estalirik, baina laster hasiko da zabaltzen. Bideak haitzetan gora egiten du, errebuelta ugariekin, "Complacera" edo "Relloso" izenekin ezagutzen den tunelera arte (ordubetea). Tunela pasatu ostean, gorantz doan bidetxoa ikusiko dugu eskuman, aurrean haitz txiki eta malkartsua ikusten da. Haren puntara igo barik, bidetxotik jarraituko dugu pinu artean lepo batera heldu arte. Lepoan gaudela, amildegi ondoko bidetxotik jarraituko dugu aldats gora pagadi bateraino. Orain apur bat beherantz beste lepo bateraino. Hemendik ikusten da, Tres Dedos-eko lehenengo "atzamarrean", haitzetan gora, artez, estrata bat. Estrata horretatik erdiraino baino ez dugu igoko. Hortik artez jarraituko dugu bigarren "atzamarrean" puntaraino, eta handik aurrera hirugarren "atzamarreantz". Tres Dedos mendia magalean gaude. Aldatsaren erdian dagoen pasabide estu batetik igoko dugu, hemendik gorantz eta eskoirantz joanda, tontorrean gara laster. (2h 15').